

2018/09/14ko bileran JAPeko Jarraipena egiteko Batzordeak 2018/19ko ikasturtean aplikaturiko UPV/EHUko Irakasleen Jardun Akademikoaren Planari dagozkion erabakitako aldaketak Kolore grisean daude.

PROPOSAMENA: UPV/EHUko IRAKASLEEN JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA - 2015

HITZAURREA

Apirilaren 30eko 898/85 Errege Dekretuak, unibertsitateko irakasleen araubideari buruzkoak, zehazten du arloan ezarri beharreko araudia, eta bertan jasota daude irakasleek irakaskuntzaren, ikerketaren eta gestioaren arloan betetzen duten jardunari buruzko gaiak. Errege Dekretuko 9.3 artikulua ondokoa dio: *3. La duración de la jornada laboral de los profesores con régimen de dedicación a tiempo completo será la que se fije con carácter general para los funcionarios de la administración pública del estado, y se repartirá entre actividades docentes e investigadoras, así como de atención a las necesidades de gestión y administración de su departamento, centro o universidad, de acuerdo con lo que se establece en el apartado 9 de este artículo. Para los profesores con régimen de dedicación a tiempo parcial será la que se derive de sus obligaciones tanto lectivas como de tutorías y asistencia al alumnado.*

Gorago aipatutako 9. artikuluan honako hau ere esaten da: *9. Sin perjuicio del necesario cumplimiento de las obligaciones mínimas de docencia y tutoría o asistencia al alumnado, las universidades podrán señalar en sus estatutos otras actividades a desarrollar por el profesorado durante su jornada, con el límite de que, al menos, un tercio de la misma quedara reservada a tareas de investigación.)*

Ildo horretatik, UPV/EHUren Estatutuetako 25.2 artikulua ondokoa xedatzen du: *2.- Gubernu Kontseiluak zehaztuko ditu irakaskuntzaren alorreko betebeharrak eta eskolak esleitzeko irizpide orokorrak eta, beharrezkoa izanez gero, ikerketaren alorreko betebeharrak. Kontuan hartuko ditu, horretarako, irakasleen arduraldiak eta izendapen edo kontratuetan beren-beregi jaso ahal izango direnak. Edonola ere, legeria orokorrean eta autonomikoan xedatutakoa beteko da beti. Gubernu Kontseiluak, halaber, irakasleek lanaldian zehar aurrera eraman ahal izango dituzten beste jardueren buruzko irizpideak zehaztuko ditu.*

Ohituraz, unibertsitatean, irakasleen jarduna zein heinean bete den neurtzeko, irakaskuntzako lana hartu izan da oinarri. Hala ere, plantillaren tamaina eta egiturari buruzko planteamendu orokorra egiteko, beharrezkoa da kontuan hartzea irakasleek egiten dituzten jardura guztiak, eta eredu malgu, gestiorako erraza eta UPV/EHU dauden errealitate guztiak bilduko dituen osatzea. Helburua hori izanik, 2006ko urrian, Gubernu Kontseiluak abian jarri zuen gestiorako eredu bat, eta horren arabera, irakasleei kredituak aitortzen zitzaizkien irakaskuntzarekin, ikerketarekin eta gestioarekin lotutako lan gehigarriengatik, betiere, ikerketaren arloan gutxienezko batzuk beteta.

Eta, UPV/EHUko Gubernu Kontseiluak, 2012ko irailaren 27an egindako bileran hartutako erabaki bidez, Irakasleen Jardun Akademikoaren Plana (JAP) onartu zuen 2012/2013 ikasturterako eta hurrengoetarako.

Plana onartu zenetik hiru urte igaro direnez, uste dugu Irakasleen Jardun Akademikoaren Plan (JAP) hori osorik berrikusi behar dela, gradu eta graduondoko berrien irakats eskaintza ia erabat ezarrita dagoelako eta sailetakako irakats betebeharrekin ia-ia sailen irakats ahalmenaren % 100 hartzen dutelako.

HELBURUA

Proposamen honen xedea da irakasleen gestiorako politika berriz diseinatzea eta ezartzea, politika inklusiboa eta mailakatua, eta irizpide malguz osatua, hartara irakasleen eta ikertzaileen lan osoa kontuan hartzeko (irakaskuntzako lana, gestiokoa, ikerketakoa eta transferentziakoa); politika horretan, kontuan hartuko dira aurreko esperientzia eta gestiorako politika hori ezartzeko benetako ahalmena.

Horretarako, eredu garatuago bat proposatzen dugu, urteko lanaldia oinarri hartuta irakasle eta ikertzaileen jarduna neurtzeko; eredu honetan **lanaldi osoan ari diren irakasle eta ikertzaile iraunkorrak eta lanpostuen zerrendako plazetan prestakuntza bidean ari direnak** bilduko dira. Ereduaren gestioa errazte aldera, eta ondorio horietarako baino ez, urteko lanaldia 1.600 ordutan ezarriko dugu, bai batzuentzat, bai besteentzat. Urteko 1.600 ordu horiek 64 jarduera kredituren pareko hartuko ditugu (1 kreditu = jarduera batean emandako 25 ordu), eta horri “irakasle kreditu (IK)” deituko diogu.

JARDUN AKADEMIKOAREN BANAKETA

Irakasle eta ikertzaile iraunkorren kasuan, urteko 1.600 ordu horietatik, 300 ordu (12 IK) ezinbestekoak izango dira oinarrizko gestioko lana betetzeko: sailen, ikastegien, zerbitzuen eta unibertsitateko egituren funtzionamendurako oinarrizko lanak egiteko. Prestakuntza bidean dauden irakasle eta ikertzaileen kasuan (irakasle atxikiak, aldi baterako lankideak eta bitartekoak, akreditaziorako konpromisoa dutenak), 200 ordu (8 IK) izango dira oinarrizko gestio lanean eman beharrekoak. Sailaren ardura izango da jakinaraztea saileko kideetako bakoitzak oinarrizko lan hori betetzen duen edo ez. Sailak kontrako txostena eginez gero, ondo arrazoituta egon beharko da. Unibertsitateak kontuan hartu ahal izango du kontrako txostena irakasleen eta ikertzaileen ebaluazio prozesuetan eta promozioetan.

Irakasle eta ikertzaile iraunkorren kasuan, ezinbestekoa izango da beste 300 ordu (12 IK) prestakuntza eta eguneratze lanetan ematea, irakasleak izan beharreko ezagutza eta trebetasunak mantentze aldera. Prestakuntza bidean dauden irakasle eta irakasleek 400 ordu (16 IK) eman beharko dituzte lan horretan. Sailek ez dute jarduera horien inguruko txostenik egin beharko, ez bada sailean aparteko kasuren bat dagoela, eta horrelakoetan, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak aztertu beharko du egoera.

Gainontzeko 1.000 orduak (40 IK) ondoko lanetan banatuko dira: irakaskuntza, ikerketa eta gestio gehigarria; kontuan hartuta, betiere, unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen artean dauden errealitate desberdinak. Oro har, jarduerak edo lanak era honetara banatuko dira:

- 250 ordu (10 IK) gehienez, oinarrizko irakaskuntza lanagatik eta ikerketagatik.
- 350 ordu (14 IK) gehienez, irakasle iraunkorrentzat, ikerketako lan gehigarriagatik; 250 ordu (10 IK) prestakuntza bidean dauden irakasleentzat.
- 100 ordu (4 IK) gehienez, irakasle iraunkorrentzat, gestio lan gehigarriagatik; 50 ordu (2 IK) prestakuntza bidean dauden irakasleentzat.

- 400 ordutik (16 IK) 750 ordura bitarte (30 IK) irakasle iraunkorrenzat, irakaskuntzako jarduerengatik. Edonola ere, ohiko irakaskuntza jarduerengatik gutxienez 300 (12 IK) izango dira eta gehienez 750 (30 IK). Prestakuntza bidean dauden irakasleek, irakaskuntzako jardueretan, 500 ordutik (20 IK) 750 ordura arte (30 IK) emango dituzte. Gainera, irakasle hauen kasuan, gutxienez 450 ordu (18 IK) izango dira ohiko irakaskuntzako jarduerengatik. Edonola ere, gutxienez, aurrez aurreko 45 eskola ordu (4,5 IK) eman beharko dira.

I. eranskinetako A eta B tauletan jasota ageri dira irakasle eta ikertzaile iraunkorrek zein prestakuntza bidean daudenek egin beharreko jarduerak.

Unibertsitateko sistema informatikoan jasota dago araudi honen eraginpeko irakasle guztien egoera. Egoera hau, lehenengo eta behin, irakasle eta ikertzaileen irakats ahalmenean dago islatuta, eta, ondoren, irakats betebeharreran.

IRAKATS AHALMENA

Irakats ahalmen gordinak irakasle batek gehienez eman dezakeen kreditu kopurua adierazten du. Aldagai hau oso garrantzitsua da, sailak kontratazioarako daukan premia zehazten baitu.

Irakasle baten irakats ahalmen gordina zehazteko, oinarri hartzen da egiaztatuta daudela irakasle batek prestakuntzan, eguneratze lanean, irakaskuntza lanean, ikerketan eta oinarritzko gestioan bete behar dituen 34 IK-k. Gainontzeko 30 IK-etatik, kredituak murriztu ahal izango dira ikerketa gehigarriko a), b) eta c) atalen bidez. Hau da:

- a) 4 kreditu irakasle eta ikertzaile doktoreek,
- b) 8 seiurtekoa daukatenean,
- c) 14 kreditu apirilaren 20ko 14/2012 EDko 6.4 artikuluan, 6/2011 Lege Organikoko arduraldiari buruzko 68.2 artikulua aldatuari dagokionez, zehazten diren baldintzak betetzen dituzten irakasle eta ikertzaileek, funtzionario zein kontratatu.

Irakasle kontratatuek izan dezaketen irakas-zama erreala (eman beharrekoa) 24 kreditukoa izango da Irakasle eta ikerlari laboralen lan hitzarmenean horrela jasota dagoen kasuetan.

Irakasle eta ikertzaileen irakats ahalmen gordina ikasturtearen hasieran eguneratuko da sistema informatikoan. Irakasle eta ikertzaileen plangintza batzordeek sailatuko irakasle eta ikertzaileen irakats ahalmen berriei buruzko informazioa jasoko dute. Edozelan ere, informazio hori eguneratu egingo da unibertsitateak irakasleren batek a) eta b) ataletako egoera aldatu egin duela jakinez gero. Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak sistema informatikoa sailen eta ikastegien esku jarriko du, uneoro informazio hori kontsultatu ahal izan dezaten.

Irakats ahalmen gordina gutxitu ahal izango da irakaslanaren murrizpenak (kargu akademikoak, lizentziak edo gaixotasun eta amatasun bajak) islatzeko. Irakats ahalmen gordinaren eta murrizpen hauen arteko diferentziari irakats ahalmen garbia deituko zaio, eta hori hartu beharko da kontuan sailen irakasle premiak neurtzeko.

IRAKATS BETEBEHARRAK

Oro har, eta I. eranskineko A eta B taulei jarraituz, irakats betebeharrak adierazten dute irakasleak zenbat kreditu betetzen dituen ondoko jardueretan:

- a) Ohiko irakaskuntza lanean
- b) Bestelako irakaskuntza lanetan
- c) Ikerketako beste lan gehigarrietan, I. eranskinean jasotakoak (3. puntua irakasle eta ikertzaile iraunkorrentzat; 2. puntua plaza hutsa betetzen ari diren lan kontratadunentzat).
- d) Gestio gehigarriko lanetan.

Ez zaie irakats betebehartzat hartuko, inondik inora, b), c) eta d) ataletan:

- 2 kreditu baino gehiago 14/2012 EDko 6.4 artikulua eragiten dienei,
- 4 kreditu seiurtekorik dutenei,
- 6 kreditu doktore titulua dutenei,
- 8 kreditu seiurtekorik ez duten ezdoktorei.

Ohiko irakaskuntzako kredituak murrizteko, bestelako irakaskuntza lanak egiteagatik edota ikerketako zein gestioko lan gehigarriak egiteagatik, irakasle eta ikertzaileak heldu egin beharko dira 64 kredituetara jardun akademikoaren planean.

Izaera orokor hori ez zaie ezarriko kargu akademikoa daukaten irakasle eta ikertzaileei, baldin eta karguan egoteagatik murrizpenik badute. Edozelan ere, b), c) eta d) ataletako jarduerengatik lortutako kreditu kopurua gehi kargu akademikoagatik liberatuta egotearren lortutako kreditu kopurua, hau da, bien batura, gehienez ere kargu akademikorik izan ezean irakasleak izango lituzkeen irakats ahalmen gordinaren 3/4 izan ahal da. Era berean, Gobernu Kontseiluak onartutako deialdi berezien bidez liberazioa lortzeko proposamenetan (besteak beste, doktorego tesia amaitzeko, euskaraz irakasteko gaitasuna lortzeko...) berariaz ageri beharko da jasota zein heinean murriztuko den irakats ahalmen gordina, baldin eta murrizteko aukerarik badago.

II. eranskinean jasota daude b), c) eta d) ataletan zein jarduera mota dauden bilduta horien bidez kredituak lortzeko. Adierazi nahi dugu zerrenda horren helburua ez dela UPV/EHUko arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileek egiten dituzten jarduera guzti-guztiak neurtzea, ezpada bultzatu nahi diren horiek jasotzea, batetik, UPV/EHUren 2012-2017 Plan Estrategiko helburuak lortze aldera, eta, bestetik, Nazioarteko Bikaintasun Campusa garatzeko bidean ebaluaziorako kanpo adierazleak hobetze aldera.

III. eranskinean jasota daude ohiko irakaskuntza jarduera guztiak eta horietako bakoitzaren kreditu kopurua (a) atala).

KREDITUAK AITORTZEKO PROZEDURA

Kredituak aitortzeko proposamen hau ahalik eta arinen abian jartzeko, bertan onartzen diren jarduerak urtero-urtero modu erraz eta automatizatuan egiaztatzeko modukoak izan behar dira. Horrela, bada, proposatzen dugun eredu honek oinarri dauka, hein handi batean, metatu dugun esperientzia.

Urtero, irakasleari ikasturteko irakats betebeharrak esleitzeko prozesua hasi aurretik, sailak jakin beharko du irakasle bakoitzak zenbateko irakats ahalmen gordina daukan, zelako murrizpena daukan kargu akademikoagatik, eta b), c) eta d) ataletako jarduerengatik eta ohiko irakaskuntzan eginda dituen lanengatik aitortzen zaizkion

kredituen kopurua. Orduan alegazioak egiteko epea zabalduko da. Lehen instantzian tartean dauden zerbitzuek ebatziko dituzte, eta, azken buruan, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak ebatziko ditu. Hala ere, batzorde bat eratuko da alegazio prozesuan sortutako gorabeherak ebazteko. Batzorde horren buru Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea izango da eta, gutxien dela, batzordeak beste sei kide izango ditu: Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak izendatutako bi kide, Ikerketaren arloko errektoreordeak izendatutako beste bi, eta Gobernu Kontseiluak aukeratutako irakasle eta ikertzaileen bi ordezkari.

Irakasleei kreditu guztiak aitortu ondoren sailak ez badauka ahalmen nahikoa irakats betebeharrak guztiei aurre egiteko, bete ezin dituen irakats betebeharrak modu proportzionalean banatuko ditu irakasle eta ikertzaileen artean, Irakaskuntza Aldi Baterako Esleitzeko eta Irakasleen Artean Banatzeko Arautegian zehaztutako irizpideei jarraituz (2011ko apirilaren 26ko EHAA). Aukeran dago, bestalde, betebeharrak kideko sailei ematea, irakaskuntza esleitzeko araudiari jarraituz. Edozelan ere, uneoro beteta egon behar da irakaskuntza jarduerak, eta lehentasuna izango dute titulazioa lortzeko nahitaezko irakasgaiek eta gutxieneko hautazkoek. Horrelakoetan, erregistratu egingo dira defizitak, eta datu hori irizpide nagusi izango da irakasle eta ikertzaileen plaza berriak esleitzean Irakasleen Plan Gidariaren barruan.

Sail baten irakats ahalmena irakats betebeharrak baino handiagoa bada, ohiko irakaskuntzako jarduerak irakasle bakoitzaren ahalmenaren arabera banatuko da, kontuan hartu ondoren irakasle bakoitzak zenbat kreditu dituen aitortuta b), c) eta d) atalengatik eta ohiko irakaskuntzako jardueretan eginda dituen lanengatik.

Sailaren hurrengo ikasturteko irakaslan behin banatuta, irakasle edo ikertzailearen baten ahalmena aldatuko balitz CNEAIk edo UNIBASQek seiurtekoen inguruan hartutako erabakiengatik, saila ez da behartuta egongo irakaslan berriz banatzera. Hala ere, ezusteko arrazoiren batek beharrezkoa balitz irakaslan berriz banatzea, kontuan hartu beharko da irakaslearen egoera berria, bai irakats ahalmen gordinari dagokionez eta bai arautegi honetan jasotako jarduerengatik aitortutako kredituei dagokienez.

Gainera, irakaslan banatzean sailak saiaturako dira irakasgai bera ez banatzen irakasle bat baino gehiagoren artean, hori ikasleen kalterako dela pentsatzen baita. Horretarako, sailek kontuan hartuko dute Irakaskuntza Aldi Baterako Esleitzeko eta Irakasleen Artean Banatzeko Arautegiak aukera ematen duela irakaslan hainbat urtetarako banatzeko, eta, hortaz, JAPak markatzen duena baino irakaslan gehiago egiten duten irakasleei hurrengo ikasturteetan eman ahal izango zaiela horren ordaina, irakats betebeharrak gutxiago esleitzuz.

Araudi hau ez zaio ezarriko lanpostu hutsean ez dagoen irakasle kontratatuari, ez eta arduraldi partzialeko irakasleari ere, irakasle horien kontratua irakaskuntza jarduerak egiteko baino ez da eta.

UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Gestiorako prozedura hau behin onartuta, unibertsitateak gainbegiratu egingo ditu proposamen honen eraginpeko araudi guztiak.

I. ERANSKINA

A taula Arduraldi osoko irakasle eta ikertzaile iraunkorrek egin beharreko lanen laburpena

Oinarrizko gestioa (12 IK) Aintzat hartuko dira unibertsitateko sail, ikastegi, zerbitzu eta egituren funtzionamendu egokirako ezinbestekoak diren gestio lan eta jarduerak. Irakasle eta ikertzaileek hauetariko batzuk egin beharko dituzte, besteak beste: ▪ Bilerak (sailekoak, ikastegikoak eta abar). ▪ Batzordeetako kide eta koordinatzaile izatea (sailekoak, ikastegikoak eta abar). ▪ Eskariak, txostenak eta halakoak egitea. ▪ Irakasgaietan, moduluan, mailan edo titulazioan koordinatzea ▪ Irakasgaiak koordinatzea ▪ Ikasketen gidaliburuak eguneratu/egokitzea ▪ Bestelako oinarrizko gestio lanak	Prestakuntza eta eguneratzea (12 IK) Lan hauek ezinbestekoak dira irakasleek ezagutzak eta trebetasunak eguneraturik izateko. Besteak beste, hauek hartuko dira kontuan: ▪ Ikastaro, hitzaldi eta biltzarretara joatea ▪ Informazioa bilatzea, liburuak eta artikulua irakurtzea ▪ Ikasmaterialak egokitzea ▪ Biltzarretan edo jardunaldietan komunikazioak aurkeztea ▪ Ikertaldean jardueretan parte hartzea ▪ Prestakuntza eta eguneratzeari dagozkion oinarrizko beste zeregin batzuk
Oinarrizko irakaskuntza eta ikerketa (10 IK) Irakasleek ebaluazio positiboa jasoko dute atal honetan baldin eta baldintza hauetakoren bat betetzen badute: ▪ Aurreko ikasturteko irakaslanaren txostenen batez besteko kalifikazioa 3 edo gehiago izatea (Irakaslan Ebaluatzeko Zerbitzuak egiaztatuko du). ▪ Gai kalifikazioa izatea Docentiaz programan ▪ Unibertsitateak aitortutako ikerketa proiektu, talde edo kontraturen batean parte hartzea (Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egiaztatuko du). ▪ Artikuluren bat argitaratuta izatea aldizkari edo liburu zientifiko batean (Ikerketako Errektoreordetzak egiaztatuko du) ▪ Gutxienez 6 asteko mugikortasun ekintzaren bat burututa izatea (errektoreordetza eskudunak egiaztatuko du)	
Ikerketa gehigarria (≤14 IK) 1. 4 IK doktore gradua izateagatik edo 8 seiurtekoa edukitzeagatik. 2. 14 IK, apirilaren 20ko 14/2012 EDko 6.4 artikuluan, 6/2011 Lege Organikoko arduraldiari buruzko ataleko 68.2 artikulua aldatuari dagokionez, zehazten diren baldintzak betetzeagatik. 3. 8 IKraino, II. eranskinean azaltzen diren bestelako ikerketa jarduera gehigarriengatik.	
Irakaskuntza (16-30 IK) Ohiko irakaskuntza (14-30 IK) ▪ Gradu eta masterreko aurrez aurreko eskolak ▪ Tutoretzak, ebaluazio zuzenketak ▪ Master-amaierako lanak eta doktorego-tesiak zuzentzea ▪ Kanpoko praktika nahitaezko eta borondatezkoen tutoretza	
II. eranskinean azaldutako bestelako irakaskuntza lanak (≤4 IK) Gestio lan gehigarriak (≤4 IK) ▪ 4 IKraino, II. eranskinean azaltzen diren bestelako gestio lan gehigarriengatik	

B taula: Prestakuntza bidean dauden eta lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren lan kontratadun irakasleek egin beharreko lanen laburpena

Oinarrizko gestioa (8 IK) Aintzat hartuko dira unibertsitateko sail, ikastegi, zerbitzu eta egituren funtzionamendu egokirako ezinbestekoak diren gestio lan eta jarduerak. Irakasle eta ikertzaileek hauetariko batzuk egin beharko dituzte, besteak beste: ▪ Bilerak (sailekoak, ikastegikoak eta abar). ▪ Batzordeetako kide eta koordinatzaile izatea (sailekoak, ikastegikoak eta abar). ▪ Eskariak, txostenak eta halakoak egitea. ▪ Irakasgaietan, moduluan, mailan edo titulazioan koordinatzea ▪ Irakasgaiak koordinatzea ▪ Ikasketen gidaliburuak eguneratu/egokitzea ▪ Bestelako oinarrizko gestio lanak	Prestakuntza eta eguneratzea (16 IK) Lan hauek ezinbestekoak dira irakasleek ezagutzak eta trebetasunak eguneraturik izateko. Besteak beste, hauek hartuko dira kontuan: ▪ Ikastaro, hitzaldi eta biltzarretara joatea ▪ Informazioa bilatzea, liburuak eta artikulatuak irakurtzea ▪ Ikasmaterialak egokitzea ▪ Biltzarretan edo jardunaldietan komunikazioak aurkeztea ▪ Ikertaldean jardueretan parte hartzea ▪ Prestakuntza eta eguneratzeari dagozkion oinarrizko beste zeregin batzuk
Oinarrizko irakaskuntza eta ikerketa (10 IK) Irakasleek ebaluazio positiboa jasoko dute atal honetan baldin eta baldintza hauetakoren bat betetzen badute: ▪ Aurreko ikasturteko irakaslanaren txostenen batez besteko kalifikazioa 3 edo gehiago izatea (Irakaslan Ebaluatze Zerbitzuak egiaztatuko du). ▪ Gai kalifikazioa izatea Docentiaz programan ▪ Unibertsitateak aitortutako ikerketa proiektu, talde edo kontraturen batean parte hartzea (Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egiaztatuko du). ▪ Artikuluren bat argitaratuta izatea aldizkari edo liburu zientifiko batean (Ikerketako Errektoreordetzak egiaztatuko du) ▪ Gutxienez 6 asteko mugikortasun ekintzaren bat burututa izatea (errektoreordetza eskudunak egiaztatuko du)	
Ikerketa gehigarria (≤10 IK) 1. 4 IK doktorea izateagatik edo 6 IK irakasle atxikia/doktore-laguntzailea edota irakasle agregatua/Unibertsitateko titularra izateko akreditazioa edukitzeagatik 2. 6 IKraino, II. eranskinean azaltzen diren ikerketa lan gehigarriengatik	
Irakaskuntza (20-30 IK) Ohiko irakaskuntza (20-30 IK) ▪ Graduak eta masterreko aurrez aurreko eskolak ▪ Tutoretzak, ebaluazio zuzenketak ▪ Master-amaierako lanak eta doktorego-tesiak zuzentzea ▪ Kanpoko praktika nahitaezko eta borondatezkoen tutoretza II. eranskinean azaldutako bestelako irakaskuntza lanak (≤2 IK)	
Gestio lan gehigarriak (≤2 IK) ▪ 2 IKraino, II. eranskinean azaltzen diren bestelako gestio lan gehigarriengatik	

(*) Kontuan har bedi oinarrizko gestio eta prestakuntza eta eguneratze lanak gutxiago direla irakasle iraunkorrek egin beharrekoen aldean. Hori da irakasle atxikiak ikerketara bultzatzeko, eta horrela bidea errazteko irakasle iraunkor gisa akredita daitezten.

II. ERANSKINA

Eranskin honetan jaso ditugu kredituak aitortuko zaizkien lan mota desberdinak. Irizpide orokor hauek aplikatuko dira:

- Ikasturte bati esleitutako lanen kredituak ezin izango dira beste ikasturte batera pasatu.
- Besterik adierazi ezean, kredituak bi ikasturte beranduago aitortuko dira, denbora izan dezagun egiaztatzeko lanak burutu ziren ala ez, eta sailek ere astia izan dezaten irakaslan behar bezala planifikatzeko¹.
- Ikerketa edo prestakuntza proiektuei lotutako kredituetarako eta lan zientifikoen argitalpenerako urte naturalak hartuko dira kontuan².
- Merezimendu bakoitza kontzeptu bakar baten pean baino ez da ebaluatuko.
- Aztergai den epean kargu bat pertsona batek baino gehiagok bete badu, horri dagozkien kredituak karguan egondakoen artean banatuko dira modu proportzionalen.
- JAPean aipatzen diren graduako eta graduondoko irakaslan guztiak eta haien gestioarekin zerikusia duten zeregin guztiak UPV/EHUn emandako programen barruan egin behar dira.
- JAParen aurreko deialdietan, kontzeptu batzuk baloratzeko orduan arazoak egon dira egileek ez baitzuten beraien lanetan agerian utzi UPV/EHUkoak zirela. Gauzak horrela, ezinbestekoa izango da afiliazioa UPV/EHU akronimoaren bidez adieraztea

Hurrengo tauletan zehazten da **zein lanen truke aitortuko zaizkion irakasle bakoitzari irakaskuntza kredituak**. Era berean, lan bakoitza zein zerbitzuek ebaluatuko duen zehazten da.

¹ Adibidez, 2017/18 ikasturteko irakaskuntza planifikatzeko, 2016ko urrian aitortuko dira jardueren dagozkien kredituak. Kreditu horiek aitortzeko, kontuan hartuko dira 2015/16 ikasturtean egindako jarduerak eta irakasle eta ikertzaileen sailkapena une horretan (2016ko urria).

² Adibidez, 2017/18 ikasturteko irakaskuntza planifikatzeko, 2016ko urrian aitortuko dira jardueren hauei dagozkien kredituak, kontuan hartuta 2015, urtean egindako guztia.

KREDITUAK LORTZEA IKERKETARI LOTUTAKO LANEN BIDEZ

1. Taula: kredituak lortzea ikerketa lan gehigarrien bidez

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
IKER1	JCR, SCOPUS argitalpenak	Seiurtekorik gabeko Irakasle ez doktoreek bi kreditu lortu ahal izango dituzte JCR edo SCOPUS argitalpenen bidez, Traineran eskaera bat eginez.	Ikerketaren arloko Errektoreordetza
IKER2	Ikerketa proiektu, talde edo kontratu bateko kide izatea	- Seiurtekorik gabeko irakasle eta ikertzaile ez doktoreentzat, UPV/EHUko, autonomia erkidegoko edo estatuko proiektu batean parte hartzeagatik kreditu bat. - Seiurtekorik gabeko irakasle eta ikertzaile ez doktoreentzat, 9.000 eurotik gorako kontratu batean parte hartzeagatik kreditu bat.	Ikerketaren arloko Errektoreordetza
IKER3	Argitalpenak izatea Nature-n, Science-n, ustiutzen ari den patente bat, HCI izatea edo domina izatea	4 kreditu lortu ahal izango dira gehienez	Ikerketaren arloko Errektoreordetza
IKER4	Nazioarteko ikerkuntzako edo Europar Batasuneko Esparru-Programako proiektuak edo urtero 150.000 eurotik gorako kontratuak/hitzarmenak	6 Europar Batasuneko Esparru-Programaren barruan ERC bateko Grantee izatea. 5 Partzuergoan dagoen proiektu bateko burua izatea. 4 kreditu ikertzaile nagusientzat. 2 kreditu kideentzat.	Ikerketaren arloko Errektoreordetza

IKER5	Akreditazio konpromisoa indarrean edukitzea, azken lau urteen barruan sinatuta, edo tesia azken lau urteen barruan inskribatu izana ⁽³⁾	• 6 kreditu, prestakuntza bidean dauden irakasle ez doktoreentzat, baldin eta doktore-titulua eta akreditazioa lortzeko konpromisorik badaukate. • 2 kreditu prestakuntza bidean dauden irakasle doktoreentzat, baldin eta akreditazioa lortzeko konpromisorik badaukate. • 2 kreditu gainerako irakasleentzat. Irakaslea akreditatzen denetik aurrera, ez zaio krediturik aitortuko akreditazio konpromisoagatik. Kasu horretan akreditazioa erabiliko da "Ikerketa gehigarria" atalaren 1. zatian aipatzen diren 6 kredituak aitortzeko. Inskribatutako tesiagatik kredituak aitortuko dira baldin eta ebaluazioa egiten denean tesia oraindik defendatu ez bada eta akreditazio konpromisorik ez badago. Gainera, ez da krediturik aitortuko baldin eta irakasleak tesia prestatzeko bestelako murrizpenik badu.	Irakasle- ikertzaileen arloko Errektoreordetza
--------------	---	--	---

IKER2 eta IKER4 kontzeptuei buruzko oharra:

Proiektuen kasuan, UPV/EHUK erakunde gisa proiektuan parte hartzen duenean eta zuzenean dirua jasotzen duenean baino ez da krediturik aitortuko. Taldeei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak edo UPV/EHUK aitortutakoak baino ez dira aintzat hartuko.

Kontratuen kasuan, UPV/EHUKo kudeaketa-organoen bidez (Ikerketaren Emaizak Transferitzeko Bulegoa, Euskoiker) erregistratuta egon beharko dira. Urte naturalean gutxienez hiru hilabetez garatu diren proiektu, talde edo kontratuetan parte hartzea baino ez dira kontuan hartuko.

IKER2 eta IKER4 kontzeptuei dagozkien kredituak ezin dira gehitu: jarduerarik onuragarriena hartuko da kontuan.

³ Adibidez, kredituak 2017ko irail eta urri artean aitortzen badira, 2013ko irailaren 1etik aurrera inskribatutako tesiak hartuko dira kontuan

KREDITUAK LORTZEA EZOHICO IRAKASKUNTZA LANEN BIDEZ

2. taula: Kredituak lortzea ezohiko irakaskuntza lanen bidez

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
EI1	Ikastegiko Kalitatea Bermatzeko Batzordeko kidea izatea, baina ez ikastegiko zuzendaritzakoa edo graduako edota maila/modulu/ibilbideko koordinatzailea	▪ Kreditu 1 - Honako muga hauek izango dira: ▪ Berme eta kalitate batzordeek osakide hauek izango dituzte: batzordeko burua, idazkaria eta, gainera, irakasle eta ikertzaileen n+1 kide, non n ikastegian ematen diren graduen kopurua den. ▪ Irakaslea maila, modulu edo ibilbideko koordinatzailea edo graduako koordinatzailea denean, kredituak ez dira pilatuko. ▪ Irakaslea ikastegiko zuzendaritzako kidea bada ebaluatzen den aldian, ez zaio krediturik aitortuko.	Ikastegietako zuzendaritzak
EI2	Campus Birtualeko Koordinatzailea izatea errektoreordetza eskudunaren onespenerekin.	▪ Kreditu 1	Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza
EI3	Bigarren hezkuntzako masterreko espezialitateko koordinatzailea.	▪ Kreditu 1	Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza

2. taula: Kredituak lortzea ezohiko irakaskuntza lanen bidez

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
E14	UPV/EHUko graduatan mailako, moduluko edo ibilbideko koordinatzailea izatea, ikastegiko zuzendaritzako kidea izan barik.	▪ Kreditu 1 (ikasturte berean) - Honako muga hauek izango dira: • Ezin izango da mailako/moduluko/ibilbideko koordinatzaile bat baino gehiago egon aldi berean. • Ikastegi bakoitzak erabakiko du titulazioa mailaren, moduluaren edo ibilbidearen bidez koordinatzen den. JAPERako ezin izango da aukeratu koordinazio modu bat baino gehiago. • Irakasleak maila, modulu edo ibilbide bat baino gehiago koordinatzen badu, edo graduako koordinatzailea bada, kredituak ez dira pilatuko. • Ez da 4 modulu edo ibilbide baino gehiago kontuan hartuko gradu bakoitzeko. Graduak lau modulu edo ibilbide baino gehiago izanez gero, eta ikastegiak modulu edo ibilbideen arabera koordinazioa hautatuko balu, ikasle gehien matrikulatuta dauden modulu edo ibilbideetako koordinatzaileei aitortuko zaizkie kredituak. • Irakaslea ikastegiko zuzendaritzako kidea bada ebaluatzen den aldian, ez zaio krediturik aitortuko.	Ikastegietako zuzendaritzak
E15	Parte hartzea ikerketa proiektutzat jotzen ez diren goi mailako hezkuntzako nazioarteko proiektuetan, ez UPV/EHUtik kanpoko deialdiak, eta errektoreordetza eskudunaren onespina badute (Alfa, AECID, Erasmus...).	▪ 2 kreditu arduradunarentzat ▪ Kreditu 1 beste parte hartzaileei (5 lagun baino gehiago izanez gero, 4 kreditu denon artean banatzeko)	Koordinazioaren eta Nazioarteko Harreman arloko Errektoreordetza
E16	Ebaluazio positiboa Docentiaz programan azken bost deialdietan	▪ 2 kreditu ebaluazioa "bikain" izanez gero ▪ 1 kreditu ebaluazioa "oso ondo" izanez gero.	Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza

2. taula: Kredituak lortzea ezohiko irakaskuntza lanen bidez

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
EI7	UPV/EHUn emandako graduoko koordinatzailea izatea, ikastegiko zuzendaritzako kidea izan barik	▪ 3 kreditu (ikasturte berean). Honako muga hauek izango dira: • Ezin izango da graduoko koordinatzaile bat baino gehiago egon aldi berean. • Irakasleak maila, modulu, ibilbide edo gradu bat baino gehiago koordinatzen baditu, edo ikastegiko Berme eta Kalitate Batzordeko kidea bada, kredituak ez dira pilatuko. • Irakaslea ikastegiko zuzendaritzako kidea bada, ez zaio krediturik aitortuko.	Ikastegietako zuzendaritzak
EI8	UPV/EHUko doktorego programen gestioa: 1393/2007 EDren eta 99/2011 EDren babespeko UPV/EHUko doktorego programak kudeatzea, baldin eta programa horietan gutxienez doktorego tesi baten proiektua inskribaturik eta defendatu gabe badago eta aurreko ikasturtean gutxienez tesi bat defendatu bada.	▪ Programen koordinatzaileak: 2 kreditu. ▪ Batzordekideen artean: 2 kreditu ▪ Joint Doctorate elkarrenarteko doktorego programako gestioa. Arduradunak: 4 Kreditu. Honako muga hauek izango dira: • Doktorego programa bat baino gehiago kudeatzen dituzten irakasleei ez zaizkie kredituak pilatuko. Irakasleari kreditu gehien ematen dizkion jarduera hartuko da kontuan. • Ez da kontuan hartuko unibertsitateen arteko batzorde akademikoari dagokion kudeaketa zeren eta lan hori UPV/EHUko batzorde akademikoaren kudeaketa barruan dagoela jotzen baita.	Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza
EI9	UPV/EHUn emandako unibertsitateko master ofizialen gestioa, aurreko urtean gutxienez 10 ikasle izan badituzte.	▪ Master Arduradunak: 3 kreditu, ▪ Erasmus mundus masterren Arduradunak : 4 kreditu ▪ Batzorde Akademikoaren kideen artean: 2 kreditu. ▪ Erasmus mundus masterren Batzordekideen artean: 3 kreditu Honako muga hauek izango dira: • Master batean baino gehiagotan parte hartzen duten irakasle eta ikertzaileei ez zaizkie kredituak pilatuko. Irakasleari kreditu gehien ematen dizkion jarduera baino ez da kontuan hartuko. • Ez da kontuan hartuko unibertsitateen arteko batzorde akademikoari dagokion kudeaketa zeren eta lan hori UPV/EHUko batzorde akademikoaren kudeaketa barruan dagoela jotzen baita.	Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza

2. taula: Kredituak lortzea ezohiko irakaskuntza lanen bidez

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
EI10	Euskararekin zerikusia duten jarduerak	▪ Euskarazko Berezko Tituluetan euskaraz emandako irakaskuntza: emandako eskola orduak, ordaindu beharrean, JAPEan aitortuko dira irakasleak hala eskatuz gero. 20 eskola orduko kreditu bat aitortuko da kontzeptu honetan. - Gehienez lau kreditu aitortuko dira.	Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza
EI11	Euskarazko argitalpenak	▪ 2 kreditu aitortuko dira eskuliburuak argitaratzeagatik. - Gehienez bi kreditu aitortuko dira.	Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza
EI12	Genero ikuspegia unibertsitateko irakaskuntzan txertatzeko eskuliburuak (ISBN edo ISSNduak) argitaratzea	▪ 1-2 kreditu egile kopuruaren arabera.	Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza

KREDITUAK LORTZEA GESTIOARI LOTUTAKO LANEN BIDEZ

3. taula: Kredituak lortzea gestio lan gehigarrien bidez

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
G1	Irakasle eta Ikertzaileen Batzarreko eta Enpresa Batzordeko burua edo idazkaria izatea	▪ Kreditu bat AUTOMATIKOKI	Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza
G2	Unibertsitate institutuko zuzendaria izatea (institutuaren urteko memoria eguneraturik izan behar du).	▪ 2 kreditu zuzendaria izateagatik AUTOMATIKOKI ▪ Kreditu bat idazkaria izateagatik	Ikerketaren arloko Errektoreordetza
G3	Sail atal ofizialeko koordinatzailea izatea	▪ Bi kreditu AUTOMATIKOKI	Sailetako zuzendaritzak eta Idazkaritza Nagusia
G4	ACADEMIA eta VERIFICA programetako batzordekidea; CNEAIren aholku batzordekidea, Plan Nacional delakoaren Ikerketa proiektuetarako batzorde ebaluatzaileko kidea, Ramon y Cajal, Juan de la Cierva eta I3 hautaketa eta ebaluatze kidea. Bai eta ENQA (Association for Quality Assurance in Higher) agentziak eginiko antzeko lanak, eta ETPs (European Technology Platforms), JTIs (Joint Technology Initiatives), KICs (Knowledge Innovation Communities) direlakoan jardunean dauden akreditatuko kideak, Europako H2020 proiektuen ebaluaketan parte hartzeko Europako Batzordeak izendutako adituak. SGikerreko aholkulariak.	2 kreditu. Honako muga hauek izango dira: ▪ Kredituak emateko kontuan hartzen diren batzordeetan irakaslearen izendapena bi urte naturaletan zehar luzatzen bada, izendapena gutxienez 6 hilabetete luzatzen den urtea baino ez da kontuan hartuko.	Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza Ikerketaren arloko Errektoreordetza
G5	Katedraren koordinatzailea	▪ Bi kreditu, baldin eta katedrak irakaslanaren murrizpena ez badakar. AUTOMATIKOKI	Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
G6	Saileko idazkaria izatea AUTOMATIKOKI	▪ Lau kreditu, zuzendariak % 50eko liberazioa badauka ▪ Hiru kreditu, zuzendariak % 33ko liberazioa badauka. (kredituak eginkizuna egiten den urte berean grabatuko dira)	Idazkaritza Nagusiak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak

3. taula: Kredituak lortzea gestio lan gehigarrien bidez

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
G7	Estatutuetatik sortutako batzordeetako eta Gobernu Kontseiluak sortu eta onartutako batzordeetako kide izatea, baldin eta irakaskuntza betebeharren murrizpena ez badakar	0-4 kreditu bitartean, batzorde kide bakoitzak egindako lanaren arabera - Ez da aplikagarria baldin eta batzordekide izaera zuzenean kargu jakin bat izatetik eratortzen bada. kredituak eginkizuna egiten den urte berean grabatuko dira	Batzordearen ardura duen errektoreordetza eta Idazkaritza Nagusia
G8	Practicuma eta nahitaezko kanpoko praktikak kudeatzea, garapenerako lankidetzaren arloko jardueren bitartez egindakoak barne.	- Practicumeko edo nahitaezko kanpoko praktiken gestioagatik aitortuko dira, gehienez ere, ikastegian haien tutoretzea egiteagatik aitortzen diren kredituen % 20. Kredituok banatuko dira Practicumeko Batzordea osatzen duten kideen artean, arautegiari jarraiki. Honako muga hauek izango dira: - Kredituak aitortuko dira irakaskuntza burutzen den ikasturte berean.	Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza

III. ERANSKINA

Taula honek erakusten du nola aitortuko diren kredituak ohiko irakaskuntzari lotutako jarduerengatik. Kredituak aitortzeko era hau irakasle-ikertzaile guztien ohiko irakaskuntzari aplikatuko zaio, albo batera utzita gainerako arloetan arautegi honek eragiten dien ala ez.

4. taula: Kredituak aitortzea ohiko irakaskuntza jarduerengatik

	Jarduera	Irakaskuntza jarduerengatik kredituak	Kredituak aitortuko dituen errektoreordetza
OI1	UPV/EHUn emandako graduatan eta unibertsitateko master ofizialetan emandako irakaskuntza.	▪ Kreditu bat ikasleei ikasgelan emandako 10 eskola orduko ▪ Kreditu hauek eskolak ematen diren ikasturtean aitortuko dira	Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza
OI2	Doktorego tesiak zuzentzea	▪ Urte bateko irailaren 1etik hurrengo urteko abuztuaren 30era bitartean UPV/EHUn zuzendu eta defendatutako tesi bakoitzeko 8 kreditu emango zaizkie kasuan kasuko tesiko zuzendariei, kredituak berdin banatuta zuzendari guztien artean. Tesia defendatu ondoko bigarren eta hirugarren ikasturtean aitortuko dira kredituok, berdin banatuta bi ikasturteotan. Tesia nazioartekoa bada, 10 kreditu aitortuko dira. ▪ Tesia egiteko prozesuan zuzendariez gain tutoreren batek parte hartu balu, aitortu beharreko kredituetako bat hari esleituko zaio. Beste kredituak era berean zuzendarien artean banatuko dira (oro har 7 kreditu, eta 9 kreditu nazioarteko tesietan) ▪ Irakasle bakoitzari gehienez ere 10 kreditu aitortuko zaizkio ikasturte berean.	Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza

4. taula: Kredituak aitortzea ohiko irakaskuntza jarduerengatik

	Jarduera	Irakaskuntza jarduerengatik kredituak	Kredituak aitortuko dituen errektoreordetza
OI3	UPV/EHUn emandako master ofizialetako amaierako lanak zuzentzea.	Master amaierako lanak zuzentzegatik kreditu hauek aitortuko dira: ▪ Lana 8 kreditu edo gutxiagokoa bada, 0,5 kreditu ▪ Lana 8 kreditu baino gehiagokoa eta 12 kreditu baino gutxiagokoa bada, 0,75 kreditu ▪ Lana 12 kreditu edo gehiagokoa bada, kreditu 1 Kredituak aitortzean muga hauek errespetatu beharko dira: ▪ Master amaierako lana (MALa) UPV/EHUn defendatu beharko da. ▪ Lana amaitu eta handik bi ikasturtera aitortuko dira kredituak, baldin eta lana kalifikatua izan bada. ▪ Irakasle bakoitzari gehienez ere 6 kreditu aitortuko zaizkio ikasturte berean.	Masterren arduradunak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza
OI4	UPV/EHUn defendatutako gradu amaierako lanak (GRAL) eta karrera amaierako proiektuak (KAP) zuzentzea	Gradu amaierako lanak/karrera amaierako proiektuak zuzentzegatik kreditu hauek aitortuko dira: ▪ GRALa/KAPa 8 kreditu edo gutxiagokoa bada, 0,25 kreditu. ▪ GRALa/KAPa 8 kreditu baino gehiagokoa eta 12 kreditu baino gutxiagokoa bada, 0,37 kreditu. ▪ GRALa/KAPa 12 kreditu edo gehiagokoa bada, 0,5 kreditu Kredituak aitortzean muga hauek errespetatu beharko dira: ▪ Lana amaitu eta handik bi ikasturtera aitortuko dira kredituak, baldin eta lana kalifikatua izan bada. ▪ Irakasle bakoitzari gehienez ere 6 kreditu aitortuko zaizkio ikasturte berean.	Ikastegietako zuzendaritzak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza

4. taula: Kredituak aitortzea ohiko irakaskuntza jarduerengatik

	Jarduera	Irakaskuntza jarduerengatik kredituak	Kredituak aitortuko dituen errektoreordetza
OI5	Practicuma eta nahitaezko kanpoko praktikak zuzentzea, garapenerako lankidetzaren arloko jardueren bitartez egindakoak barne	- Practicuma eta nahitaezko kanpoko kredituak zuzentzeagatik kredituak aitortuko dira, formula honi jarraituta: $\text{Kreditu kopurua} = 0,02 * K * A$ non K den Practicumari edo nahitaezko kanpoko praktikei dagokien ikasketa planeko kreditu kopurua, eta A irakasleak zuzentzen dituen ikasleen kopurua Muga hauek izango dira: - Irakasle bakoitzari gehienez ere 6 kreditu aitortuko zaizkio ikasturte berean. - Kredituak aitortuko dira Practicuma egin den ikasturte berean, Practicumari jarritako kalifikazioa dena delakoa izanda. - Kontzeptu honengatik kredituak aitor daitezten, ikastegiek "PRACTICUM-Nahitaezko Praktiken gestioa" izeneko tresna erabili beharko dute GAUREn barruan.	Ikastegietako zuzendaritzak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza
OI6	Tutore lanak egitea UPV/EHUko graduatetako eta masterretako borondatezko kanpoko praktiketan, garapenerako lankidetzaren arloko jardueren bitartez egindakoak barne.	- Borondatezko kanpoko kredituak zuzentzeagatik kredituak aitortuko dira, formula honi jarraituta: $\text{Kreditu kopurua} = 0,05 * N * 0,01 * H/25$ non N den irakaslearen tutoretzapean dauden ikasleen kopurua, eta H tutore lanetan emandako orduen kopurua. - Irakasle bakoitzari gehienez ere 3 kreditu aitortuko zaizkio ikasturte berean. - Kontzeptu honengatik kredituak aitor daitezten, ikastegiek "PRAKTIGES-Nahitaezko Praktiken gestioa" izeneko tresna erabili beharko dute GAUREn barruan.	Campuseko Errektoreordetza eta ikastegietako zuzendariak

4. taula: Kredituak aitortzea ohiko irakaskuntza jarduerengatik

	Jarduera	Irakaskuntza jarduerengatiko kredituak	Kredituak aitortuko dituen errektoreordetza
OI7	Graduko eskolak ematea kideko jakintza arlo batean	Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak erabakiko du zenbat kreditu aitortuko diren kasu bakoitzean jarduera honengatik, Irakasleen Plan Gidariaren barruan ikusitako premien arabera.	Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza
OI8	Graduko eskolak ematea irakaslea atxikita dagoen ikastegitik eta irakaslearen bizilekutik 40 kilometro baino haratago.	- Irakasten den kreditu kopurua bider 1.2 egingo da kasu honetan - Kredituak aitortuko dira irakaskuntza burutzen den ikasturte berean.	Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza